

Ordiziako Udala

2023GOIO0001

**18 ETA 35 URTE BITARTEKO  
GAZTEENTZAKO ETXEBIZITZAK  
ALOKATZEKO DIRULAGUNTZAK  
EMATEKO DEIALDIA**

**CONVOCATORIA PARA LA CONCESIÓN DE  
AYUDAS PARA EL ALQUILER DE  
VIVIENDAS PARA JOVENES de entre 18 y  
35 años.**

**1. artikulua. Xedea**

**Artículo 1. Objeto.**

Laguntza hauen xedea da Ordiziako udalerrian ohiko egoitza izateko alokairu erregimenean etxebizitza bat duten 18 eta 35 urte bitarteko gazteei alokairuaren zati bat ordaintzen laguntzea, beren emantzipazioa sustatzeko eta etxeak partekatzeko aukera zabaltzeko herrian.

*El objeto de las presentes ayudas es el de contribuir en parte del pago de alquiler de la vivienda destinada a domicilio habitual de jóvenes de entre 18 y 35 años, que dispongan de una vivienda en régimen de alquiler, para fomentar así su emancipación y el alquiler compartido de viviendas en el pueblo.*

Etxebizitza partekatzen duten guztiak izan ahalko dira onuradun, baldin eta errentamendu kontratua denek sinatzen badute banan-banan. Kasu horretan, eskatzaile bakoitza bizikidetzaren unitate independentea izango da eta kontratua sinatu duten guztien artean hainbanatuta konputatuko da errenta (alokairua).


*Podrán ser beneficiarias aquellas personas que compartan una vivienda siempre que el contrato de arrendamiento se suscriba con todos y cada uno de ellos. En tal supuesto, será considerada cada una de las personas solicitantes como una unidad convivencial independiente, y la renta (alquiler) será computada de forma prorrateada entre cada uno de los suscribientes del contrato.*

Dirulaguntza oinarrietan zein deialdian ezarritako baldintzen arabera izapidetu eta emango da, eta onuradunari egotz dakioken errenta edo alokairua 2022ko azaroaren 1etik 2023ko abenduaren 31ra arte ordaintzeko izango da, betiere baldintza horiek epe horretan mantentzen baldin badira.

*La subvención se tramitará y otorgará de conformidad con las condiciones establecidas en las correspondientes bases y convocatoria, y será destinada al pago del alquiler imputable a la persona beneficiaria desde fecha de 1 de noviembre de 2022 y hasta el 31 de diciembre de 2023 y siempre y cuando dichas condiciones se mantengan durante este periodo de tiempo.*

Alokairutik edo diruz lagundu daitekeen kontzeptutik kanpo gelditzen dira, garaje eta komunitate eta administrazioko gastuei dagozkienak, bai eta kontribuzio edo zergak kontzeptupean sortu daitezkeenak ere, nahiz eta kontratuan berariaz jasota egon.

*Quedan excluidos del concepto de alquiler o cantidad subvencionable, los correspondientes a garajes y gastos de comunidad y administración, así como los que se produzcan en concepto de contribuciones y arbitrios, aun cuando figuren expresamente incluidos en el correspondiente contrato.*



Udal-laguntza hauek eskatzen dituztenek ezingo dituzte eskuratu, baldin eta antzeko laguntza jasotzen badute beste erakunde batzuegandik, errentarako-laguntza gisa. Beraz, laguntza hauek berariaz bateraezinak dira helburu bererako beste laguntza batzuekin.

*Quienes soliciten las presentes ayudas municipales no podrán obtener las mismas si reciben una ayuda similar de otras instituciones, en concepto de ayuda al arrendamiento. Por lo que estas ayudas son expresamente incompatibles con otras para el mismo objeto.*

**2. artikulua. Dirulaguntza egozteko aurrekontu kredituak eta partida, eta deialdiko dirulaguntzen gehienezko zenbateko osoa**

**Artículo 2. Créditos y partida presupuestaria a los que se imputa la subvención y cuantía total máxima de las subvenciones**

Deialdi honetan dirulaguntzetara bideratuko den partidaren zenbateko guztia 55.000 € dira, 2023 urteko aurrekontukoaren partida honen kontura:

*El importe total de la partida destinada a la presente subvención es de 55.000€ con cargo a la siguiente partida presupuestaria del año 2023:*

- 1 480.01.152.30.0104 2023 (4510) ALOKAIRURAKO DIRULAGUNTZA

- 1 480.01.152.30.0104 2023 (4510) SUBVENCIONES ALQUILER

**3. artikulua. Dirulaguntzaren zenbatekoa**

**Artículo 3. Cuantía de la Subvención**

1.- Dirulaguntzaren zenbatekoa diruz lagun daitekeen zenbatekoaren % 50 izango da gehienez, bizikidetzaren unitate bakoitzeko 325 euro gehienez ere, eta 12 hilabeteko gehieneko epea.

*1.- La cuantía de la subvención se establece en un máximo de 50% de la cantidad subvencionable, con un límite máximo de 325 euros por unidad de convivencia y un periodo máximo de 12 meses.*

2.- Zenbatekoa zehazteko, tarte sistema bat ezartzen da eskatzaileen urteko diru sarrera gordin justifikatuen arabera, eta tarte bakoitzari ehuneko bat esleitzen zaio.


*2.- Para determinar la cuantía se establece un sistema de tramos según los ingresos brutos anuales justificados de las personas solicitantes, adjudicándose a cada tramo un porcentaje.*

Kide 1ko BU	
6.000 – 12.000€	%50
12.001 – 16.000€	%40
16.000 – 20.000€	%30
20.000 – 25.000€	%20

UC de 1 persona	
6.000 – 12.000€	%50
12.001 – 16.000€	%40
16.000 – 20.000€	%30
20.000 – 25.000€	%20

Kide 2ko edo gehiagoko BU	
12.000 – 20.000€	%50
20.001 – 25.000€	%40
25.000 – 30.000€	%30

UC de 2 personas o más	
12.000 – 20.000€	%50
20.001 – 25.000€	%40
25.000 – 30.000€	%30



Ordiziako Udala

2023GOIO0001

30.001 – 35.000€ %20

30.001 – 35.000€ %20

#### 4. artikulua. Organo eskuduna

#### **Artículo 4. Órgano competente.**

Laguntzak ebazteko eskumena duen organoa Alkatetza da, eta eskumen hori tokiko gobernubatzarrari eskuordetu ahal izango dio, aplikatu beharreko legeriak ezartzen duen moduan.

*El órgano competente para la resolución de las ayudas es la Alcaldía, que podrá delegar esa competencia en la Junta de Gobierno Local en la forma que señale la legislación aplicable.*

#### 5. artikulua. Araudi ezargarria

#### **Artículo 5. Normativa aplicable.**

Laguntza hauek emateko eta onuradunaren eta erakunde emailearen arteko harreman juridikoa, deialdi honek, horretarako onartutako eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2022ko urriaren 24an (201. zk.) argitaratutako oinarriek eta dirulaguntza ematen den unean indarrean dagoen gainerako araudiak arautuko dute.

*La concesión de estas ayudas y la relación jurídica entre la persona beneficiaria y la entidad otorgante se regirá por la presente convocatoria, las bases aprobadas al efecto y publicadas en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de 24 de octubre de 2022 nº201 y demás normativa vigente en el momento de su concesión.*

Honako hauek ere arautuko dute dirulaguntza:

*Asimismo, esta subvención será regulada por:*

- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra.

- *Ley General de Subvenciones 38/2003 de 17 de noviembre.*

- Dirulaguntzen Erregelamendu Orokorra, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua.

- *Reglamento General de Subvenciones aprobado por Real Decreto 887/2006 de 21 de julio.*

- Ordiziako Udalaren dirulaguntzak emateko ordenantza orokorra.


- *Ordenanza general de concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Ordizia.*

#### 6. artikulua. Onuradunak

#### **Artículo 6. Personas beneficiarias.**

Indarrean dagoen aurrekontu ekitaldiaren kargura emango diren diru-laguntzen onuradunak izango dira, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN oinarri hauek argitaratzen diren egunean eta diruz lagundu daitekeen epean, baldintza zehatz hauek beteko dituzten pertsonak:

*Podrán ser personas beneficiarias de las ayudas con cargo al ejercicio presupuestario vigente, las personas que, a la fecha de publicación de las presentes bases en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y durante el periodo subvencionable, cumplan los siguientes requisitos específicos:*



Ordiziako Udala

2023GOIO0001

a) 18 eta 35 urte bitarteko adina izatea.

*a) Tener una edad comprendida entre 18 y 35 años.*

b) Eskatzaile edo Bizikidetzaren Unitateko kideetatik inork ez izatea beren jabetzan etxebizitzarik, herentzia edo dohaintza bidez eskuratutako etxebizitza baten edo batzuen titularkide diren kasuetan ezik, baldin eta titularkidetasun horren portzentaiak ez badu %50 gainditzen eta etxebizitzetako partaidetzen balioa 75.000,00 eurotik gorakoa ez bada.

*b) Será requisito que ninguna persona solicitante o miembro componente de la Unidad Convivencial solicitante posea vivienda alguna de su propiedad, salvo en el supuesto de que sea cotitular de una o varias viviendas adquiridas por herencia o donación, en las que ninguno de los porcentajes de cotitularidad supere el 50% y el valor de las participaciones en vivienda no superen los 75.000,00 euros.*

Hala ere, laguntza eskatu ahal izango dute etxebizitza baten jabe % 50ean baino gehiagoan direnek, etxebizitza hori erabili ezin badute, bananduta edo dibortziatuta daudenean, edo izatezko bikotearen iraungitzearen denean. Kasu horietan, epai judiziala eta hitzarmen arau-emailea aurkeztu beharko dira, etxe bizitzaren erabilera beste ezkontideari eman zaiola egiaztatzeko.

*Sin embargo, podrán solicitar las ayudas las personas propietarias de una vivienda en un porcentaje superior al 50% y que no dispongan del uso de la misma en caso de separación o divorcio, o extinción de pareja de hecho, supuestos en el que habrá de acompañarse tanto la sentencia judicial como el convenio regulador, de forma que se acredite que el uso de la vivienda ha sido adjudicada al otro cónyuge o ex pareja.*

c) Eskatzailea Ordizian urtebetez errolatuta egon izana, eskabidea aurkezteko unean, eta dirulaguntza indarrean dagoen bitartean errolatuta egon beharko da.


*c) La persona solicitante deberá estar empadronada en Ordizia durante al menos un año, en el momento de presentar la solicitud, y deberá de mantenerse empadronada durante la vigencia de la subvención.*

Eskatzailearen bizikidetzaren unitateko kide guztiak dirulaguntzaren xede den etxebizitzan errolatu beharko dira kontratua formalizatu ondoren, eta dirulaguntza indarrean dagoen bitartean mantendu beharko dira, zeina dirulaguntza jaso aurretik egiaztatu beharko den.

*Todos los miembros de la unidad convivencial de la persona solicitante deberán empadronarse en la vivienda objeto de subvención tras la formalización del contrato y deberán de mantenerse durante la vigencia de la subvención. Hecho que deberá de acreditarse antes de recibir la ayuda.*

Era berean, dirulaguntzaren aldiaren etxebizitza horretan errolatuta dauden eta kontratuaren

*Asimismo, la beneficiaria de la ayuda deberá solicitar la baja en el padrón municipal de aquellas personas no titulares del contrato*



Ordiziako Udala

2023GOIO0001

titular ez diren pertsoneri udal-errodan baja emateko eskatuko die onuradunak

*empadronadas en dicha vivienda, en el periodo de subvención.*

d) Diruz lagundu daitekeen aldian indarrean dagoen errentamendu-kontratu baten titularra izatea. Errenta banku-transferentzia edo banku-agiri bidez ordaindu beharko da.

*d) Ser titulares de un contrato de arrendamiento vigente al periodo subvencionable. El pago de la renta se realizará mediante transferencia bancaria o documento bancario.*

e) Bizikidetzaren unitatearen diru-sarreraren muga, honako hauek izango dira:

*e) Los límites de ingresos de la Unidad convivencial, serán los siguientes:*

1.- Kide bakarra, gutxienez 6.000 euro, gehienez 25.000 euro (gordinak urtean).

*1.- Un solo miembro, mínimo 6.000 euros, máximo 25.000 euros (brutos anuales).*

2.- Bi pertsona edo gehiagokoa bada, gutxienez 12.000 euro, gehienez 35.000 euro (gordinak urtean).

*2.- Si es de dos o más personas, mínimo 12.000 euros, máximo 35.000 euros (brutos anuales).*

3.- Eskatzailea beharturik badago ondorengoen edo senideen aldeko mantenu-pentsioa ordaintzera, hileko zenbateko horiek eta ordaindu beharreko hipoteka-kuotak murriztu egingo zaizkio bere diru-sarreretatik, horiek egiaztatuta.

*3.- En el caso de estar la persona solicitante obligada al pago de pensión de alimentos a favor de descendientes o familiares se reducirán de sus ingresos dichas mensualidades, acreditado el pago de las mismas, así como el de las cuotas hipotecarias a la que hiciere frente.*

f) 18 urtetik gorako bizikidetzaren unitateko kide guztiek egunean izan beharko dituzte udal zergak, tasak eta zehapenak, bai eta zerga-betebeharrak eta gizarte-segurantzarekikoak ere.


*f) Todas las personas pertenecientes a la unidad convivencial mayores de 18 años deberán de estar al corriente del pago de impuestos, tasas y sanciones municipales, así como en el cumplimiento de las obligaciones tributarias y de la seguridad social.*

g) Bizikidetzaren unitatea osatzen duten pertsonetatik inork ez izatea errentatzailearekin bigarren mailarainoko odol-ahaidetasunik edo ezkontza ahaidetasunik.

*g) Que ninguna de las personas que comprendan la unidad convivencial tengan parentesco hasta el segundo grado de consanguinidad o afinidad con la persona arrendadora.*

Edozein kasutan, onuraduntzat jotzeko, Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 13.

*En todo caso, para la consideración de beneficiaria, habrá de acreditarse el*



**Ordiziako Udala**

2023GOIO0001

artikuluaren eta 887/2006 Errege Dekretuaren 18. artikulutik 29.era bitartekoetan ezarritako baldintzak bete izana egiaztatu beharko da.

*cumplimiento de las condiciones establecidas en el artículo 13 de la Ley General 38/2003 y 18 a 29 del Real Decreto 887/2006.*

\* Jabetzako etxebizitzarekin lotutako salbuespenak: dirulaguntza eskatzeko aukera izango dute eskatzaile hauek:

*\* Excepciones referentes a la titularidad de la vivienda: podrán optar a las ayudas las siguientes personas:*

— Bananduta edo dibortziatuta daudenean. Kasu horretan, epai judiziala eta hitzarmen arau-emailea aurkeztu beharko dira, etxebizitzaren erabilera beste ezkontideari eman zaiola egiaztatzeko.

*Encaso de separación o divorcio. En este caso, deberá presentarse sentencia judicial y convenio regulador que acredite que se ha atribuido el uso de la vivienda al o a la cónyuge.*

— Ohiko etxebizitzatik etxegabetu dituztenean. Kasu horretan, etxe-gabetze erabakia duen epaia aurkeztu beharko da.

*En caso de desahucio de su vivienda habitual. En este caso, deberá presentarse la sentencia condenatoria de desahucio.*

— Indarkeria matxistako edo familia barneko indarkeriako kasu bat denean. Administrazio eskumendunak egiaztatu beharko du egoera hori.

*En caso de violencia machista o violencia familiar. Esta situación deberá ser acreditada por la administración competente.*

— Bere etxebizitza erabili ezin dutenean hondamendiren bat gertatu delako (uholdea, sutea, eta abar) edota suntsituta dagoela legez aitortu izan den kasuetan.


*En caso de no poder utilizar su vivienda por causa de catástrofe (inundación, incendio, etc.) o en los casos que se haya atestado legalmente que se encuentra en estado ruinoso.*

## **7. artikulua. Etxebizitzak bete beharreko baldintzak.**

## **Artículo 7. Requisitos que deberán cumplir las viviendas.**

a) Diruz lagunduko den etxebizitzak Ordiziako udalerrian egon beharko du, lehen okupazioko dagokion lizentzia izan beharko du eta bizigarritasun baldintzetan egon beharko du. Bizigarritasun baldintza udal-teknikari

a) La vivienda a subvencionar deberá estar situada en el término municipal de Ordizia y deberá de contar con la correspondiente licencia de primera ocupación y deberá de estar en condiciones de habitabilidad. La



**Ordiziako Udala**

batek ziurtatuko du laguntza eman aurretik.

- b) Etxebizitzaren eraikinak 50 urte baino gehiago baditu, EIT azterketa igaro beharko du.
- c) Ezin izango dira bi pertsona baino gehiago bizi etxebizitzak dituen gela bakoitzeko, egongela barne. Sukaldea eta komuna ez dira gela kontsideratzen.
- c) Etxebizitzako gelaren bat geroago azpierreant hartuz gero, egoera horren berri eman beharko zaio Ordiziako Udalari. Nolanahi ere, azpierreantadunak eta haren bizikidetzak-unitateak ordenantza honetan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.
- d) Alokairuagatik errentak 650 eurokoa izan beharko du gehienez.
- e) Kontratuak ezingo du urtebete baino gutxiago iraun.

## **8. artikulua. Onuradunaren betebeharrak**

Dirulaguntzen Lege Orokorraren 14. Artikuluan, Ordiziako Udalaren Dirulaguntzak Emateko Ordenantza Arautzailean eta 18 eta 35 urte bitarteko gazteentzako etxebizitzak alokatzeko laguntzak emateko Ordenantzaren xedatutakoaz gain, jarraian adierazitakoak onuradunen betebeharrak dira:

- Dirulaguntza eman den xederako erabiltzea.

2023GOIO0001


*condición de habitabilidad será determinada por técnico municipal antes de la concesión de la ayuda.*

- b) *Si el edificio donde se sitúa la vivienda tuviese más de 50 años deberá haber pasado la ITE.*
- c) *No podrán residir más de dos personas por habitación con las que cuente la vivienda, queda incluida la sala de estar, no así la cocina ni el baño.*
- d) *En caso de subarriendo posterior de alguna habitación de la vivienda, se deberá notificar dicha situación al Ayuntamiento de Ordizia. En todo caso, la persona subarrendada y su unidad convivencial deberá de cumplir los requisitos establecidos en la presente Ordenanza.*
- e) *La renta por alquiler deberá de ser como máximo de 650 euros.*
- f) *La duración del contrato no podrá ser inferior a un año.*

## **Artículo 8. Obligaciones de las personas beneficiarias.**

*Además de lo dispuesto en el artículo 14 de la Ley General de Subvenciones y en la Ordenanza Reguladora de la Concesión de Subvenciones del Ayuntamiento de Ordizia y en la Ordenanza Reguladora de la concesión de ayudas para el alquiler de viviendas para jóvenes entre los 18 y 35 años, son obligaciones de las personas beneficiarias:*

*- Utilizar la subvención para el concreto destino para el que haya sido concedida.*



Ordiziako Udala

2023GOIO0001

- Eskatzen zaion edo zaien informazio osagarri guztia ematea Ordiziako Udalari.
- Jakinaraztea dirulaguntza emateko aintzat hartutako edozein inguruabar objektibo zein subjektiboren aldaketa.
- *Aportar al Ayuntamiento de Ordizia cuanta información complementaria les sea solicitada.*
- *Comunicar la modificación de cualquier circunstancia tanto objetiva como subjetiva que hubiese sido tenida en cuenta para la concesión de la subvención.*

### **9. artikulua. Aurkeztu beharreko agiriak eta eskaerak aurkezteko epea.**

### **Artículo 9. Documentación y plazo para su presentación**

— Dokumentazioa. Deialdi honen eskaera orria jaso ahalko da udaletxearen sarrera erregistroan edo webgunean.

— *Documentación: Las solicitudes deberán presentarse conforme al modelo de solicitud de esta convocatoria, que se podrá recoger en el registro de entrada del ayuntamiento o en su página web.*


Ordiziako Udalak, Nisaeren Nodoaren bidez, beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu interesdunek administrazioaren esku jarri dituzten datuei buruz. Horretaz gain, dirulaguntzaren tramitazio administratiboa egiteko beharrezkoak diren egiaztapen guztiak ere egingo ditu. Horregatik, elkarreragingarriak izan daitezkeen datuak eskatzeari utziko zaio, baldin eta interesduna datu horiek erabiltzearen aurka agertzen ez bada berariaz; kasu horretan, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

*El Ayuntamiento de Ordizia mediante el Nodo de Nisae, va a realizar las comprobaciones y consultas necesarias de los datos de las personas interesadas que obren en poder de la Administración, así como cualquier otra requerida para la tramitación administrativa de la presente subvención. Es por ello que se dejarán de solicitar datos que puedan ser interoperables, siempre y cuando la persona interesada no se oponga de forma expresa al uso de los mismos, en cuyo caso, deberá aportar los datos o documentos correspondientes.*

Administrazio publikoen arteko datu bitartekaritzarako oinarria urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan zehazten da, non aitortzen baita herritarrek eskubidea dutela ez aurkezteko edozein administraziok egindako dokumentuak, jatorrizko dokumentuak, ezarri beharrekoa den araudiak eskatzen ez dituen datuak edo dokumentuak, edo interesdunok aurretik edozein administraziori emandakoak.

*El fundamento para la intermediación de datos entre las Administraciones Públicas se concreta en el artículo 28 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, donde se reconoce el derecho de la ciudadanía a no aportar los documentos que hayan sido elaborados por cualquier Administración, documentos originales, datos o documentos no exigidos por la normativa reguladora aplicable o que hayan sido*





Ordiziako Udala

2023GOIO0001

*aportados anteriormente por el interesado a cualquier Administración.*

Horren ildotik, Ordiziako Udalak honako baldintza hauek egiaztatuko ditu deialdi honetako dirulaguntza eskuratu ahal izateko, NISAeren, datuen eta beste administrazio batzuen bitartekaritza plataformaren zerbitzuen bidez:

— Zerga betebeharrak beteta dituela.

— Gizarte Segurantzaren aurreko betebeharrak egunean dituela.

Ordiziako Udalak ofizioz egiaztatuko du udalarekiko betebeharrak betetzen direla.

Era berean, Udalak ofizioz egiaztatuko du, ondorengoak:

— Eskatzailearen eta etxe berean bizi direnen errolda agiriak.

Ezin bada datuen artekaritza plataformen bidez edo hartarako gaitutako bestelako sistema elektronikoen bidez kontsulta egin, salbuespen moduan eskatu ahal izango zaio eskatzaileari dokumentazio hori aurkezteko

Deialdi honetako 4 eta 5 artikuluetan ezarritako baldintzak betetzeaz gain, honako agiri hauek ere aurkeztu beharko ditu eskatzaileak:

1. Eskabidea, behar bezala beteta eta sinatuta.

2. Laguntza eskatzen duen pertsona bakoitzaren Nortasun Agiriaren edo egoitza

*En este sentido, el Ayuntamiento de Ordizia va a verificar los siguientes requisitos para acceder a la subvención de esta convocatoria desde los servicios de la plataforma de intermediación de datos y otras administraciones, Nisae:*

— *Hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias.*

— *Hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones frente a la Seguridad Social.*

*La certificación de estar al corriente con el Ayuntamiento de Ordizia se realizará de oficio.*

*Asimismo, el ayuntamiento de Ordizia comprobará de oficio:*


— *Certificado de empadronamiento de la persona solicitante y de las demás personas que comparten vivienda con ella.*

*En el caso en que no fuera posible la realización de la consulta a través de las plataformas de intermediación de datos u otros sistemas electrónicos habilitados al efecto, se podrá solicitar excepcionalmente a la persona solicitante que presente la documentación en cuestión.*

*Además de cumplir los requisitos establecidos en los artículos 4 y 5 de la presente convocatoria, deberá aportar el solicitante la siguiente documentación:*

1. *Impreso de solicitud debidamente cumplimentado y firmado.*

2. *Fotocopia del DNI o tarjeta de residencia, de cada una de las personas demandantes de la*



Ordiziako Udala

2023GOIO0001

txartelaren fotokopia. Adin txikikorik balego, Familia Liburuaren fotokopia ere aurkeztu beharko da. Azken agiri hori kasu guztietan aurkeztu beharko da senidetasuna egiaztatzeko, baldin eta ondorengotza alegatu bada.

*ayuda. En el caso de existir menores de edad, se aportará, además fotocopia del Libro de Familia. Este último documento será preciso, en todo caso, para acreditar la filiación en caso de alegar descendencia.*

3. Etxebizitzaren alokairu kontratuaren kopia, indarrean dagoena eta diruz lagundu daitekeen epe barnekoa.

*3. Copia del contrato de arrendamiento de la vivienda, vigente y abarcando el periodo subvencionable.*

4. Kontu Korrontearen titulartasuna egiazta tzen duen agiria. (Hirugarrenaren altaren banku ziurtagiria).

*4. Documento que acredite la titularidad de la cuenta. (Certificado bancario de alta de terceros).*

5. Errenta banku-transferentzia edo banku-agiri bidez ordaindu izanaren agiriak.

*5. Recibos de pago de la renta mediante transferencia bancaria o documento bancario.*

6. Estatu mailan etxebizitzaren jabe ez izatearen ziurtagiria, laguntza eskatzen duten 18 urtetik gorako kide guztiena, jabetza erregistroak igorria, laguntza eskaera eman baino gehienez 15 egun lehenagokoa.

*6. Certificado de no ser propietario/a de vivienda a nivel estatal, emitido por el registro de la propiedad como máximo 15 días antes de la fecha de entrega de la solicitud de ayudas, de todas las personas solicitantes de la ayuda mayores de 18 años.*

Etxebizitza baten titularkide izanez gero, aurkeztu beharreko agiriak:

*Además, en caso de ser cotitular de vivienda será necesaria la aportación:*

— Herentzia kasuan, herentziaren onarpen agiria eta etxebizitza partaidetzaren eskritura.

*— En caso de herencia, aceptación de herencia y escritura de partición.*

— Dohaintza kasuan, dohaintza eskritura.


*— En caso de donación, escritura de donación.*

— Bi kasuetan, partaidetza saldu izan balitz: eskualdatzearen eskritura.

*— En ambos casos, en caso de venta de la participación: escritura de transmisión.*

7. Gaztelagun programako laguntza-eskaera gauzatu izanaren frogagiria.

*7. Justificante de haber formalizado la solicitud de ayuda del Programa Gaztelagun.*



Ordiziako Udala

2023GOIO0001

8. Eskatzailearen diru sarrerren egiaztagiriak: nominak edo beste diru sarrerren agiriak (erakunde eskumendunak egindakoa).

8. *Certificados de los ingresos del solicitante: nóminas o justificante de ingresos (emitido por el organismo competente).*

A) PFEZ aitortzeko derrigortasuna duenak edo dagoeneko aitortu duenak, honakoak aurkeztu beharko ditu:

A) *A quien tenga la obligación de declarar o haya declarado el IRPF, deberá acreditar:*

— Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga dela eta, betetako azken zerga ekitaldian aurkeztutako Aitorpenaren fotokopia eta horren jatorrizkoa, biak erkatzeko, eskaera hau aurkezteko unean. Bestalde, Pertsona Fisikoaren Errentaren gaineko Zergaren aitorpen bateratua egin den kasuan, pertsona fisiko bakoitzaren oinarri ezargarri osoa egiaztatzeko zerga oinarriaren ziurtagiria.

— *Fotocopia, junto al original para su cotejo, de la Declaración presentada del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, correspondiente al último ejercicio fiscal vencido, en el momento de presentación de esta solicitud. Por otra parte, en el caso de que se realice la declaración conjunta del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, certificado de la base imponible para verificar la base imponible íntegra de cada persona física.*

— Gainera zergapekoak ez diren prestazioak jasoko balira, prestazio horien ziurtagiria.

— *En el caso de percibir, además, prestaciones no contributivas, certificado de las mismas.*

B) PFEZ aitortzeko derrigortasunik ez duenak honakoak eman beharko ditu: Kasu guztietan:

B) *A quien no tenga la obligación declarar el IRPF, deberá acreditar: En todos los casos:*

— Ekitaldi horretan (eskaera aurkezteko unean betetako azken zerga-ekitaldia) PFEZ aitorpena aurkezteko derrigortasunik ez izatea egiaztatzen duen ziurtagiria, Foru Ogasunak emana.

— *Certificado de la Hacienda Foral acreditativa de la no obligatoriedad de presentación de la declaración del IRPF en dicho ejercicio (último ejercicio fiscal vencido en el momento de presentación de la solicitud).*

— Lanbizitzari buruzko ziurtagiria, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiak egindakoa.


— *Certificado de vida laboral expedido por la Tesorería General de la Seguridad Social.*

Gainera, hala behar denean:

*Además, cuando sea el caso:*

— Besteren konturako langileen kasuan, kontzeptu guztiengatik ekitaldi horretan jasotako diru sarrera gordin guztiei buruzko dokumentua, enpresak edo enplegu-emaileak emandakoa.

— *En el caso de trabajadores/as por cuenta ajena, documento expedido por la empresa o persona empleadora sobre la totalidad de los ingresos brutos percibidos por todos los conceptos, correspondiente al dicho ejercicio.*



Ordiziako Udala

2023GOIO0001

— Bekak, prestazioak edo subsidioak jasotzen dituztenen kasuan (Gizarte Ongizateko laguntzak barne), ekitaldi honetako dokumentua, ekitaldi horri buruzkoa eta enpresak edo enplegu emaileak laguntza horien ziurtagiria.

— *En el caso de Pensionistas o perceptores de becas, prestación o subsidio, (incluidas las ayudas de Bienestar Social), el certificado de las mismas, correspondientes a dicho ejercicio.*

C) Banandu edo dibortziatuta dauden pertsonen kasuan:

*C) En el caso de solicitantes separados/as o divorciados/as:*

— Epai irmoaren fotokopia bat, non zehazten den hitzartutako seme-alabengatik mantenu pentsioa. Mantenu pentsioaren ordainketaren ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.

— *Fotocopia de la sentencia en firme donde se estipule la pensión por manutención de hijos/as. Hay que presentar los justificantes de pago de la pensión por manutención.*

— Hipoteka kargei dagozkien hileroko ordainketen ziurtagiriak. Diru sarrerak egiaztatzeko orduan, ezingo da ekitaldi berdin bateko errenta aitortpena edo ordezeko agiriak, urte desberdinetako dirulaguntzak eskatzeko aurkeztu.

— *Justificante de pago del Importe de las cargas hipotecarias mensuales existentes. A la hora de justificar los ingresos, no se podrá presentar la declaración de la renta o documentos sustitutivos correspondientes a un mismo ejercicio, para solicitar ayudas aprobadas para distintos años.*

9. Etxegabetzea denean, etxegabetzea erabaki duen epaia.

*9. En caso de desahucio, sentencia condenatoria de desahucio.*

10. Indarkeria matxistako edo familia barneko indarkeria kasu bat denean, oinarrizko gizarte-zerbitzuen txostena.

*10. Cuando se trate de un caso de violencia machista o familiar, informe de los servicios sociales del Ayuntamiento de Ordizia.*

11. Hondamendia denean, Ordiziako Udaleko zerbitzuek frogagiri gisa egindako txostena. Suntsitze egoeran dauden etxebizitzaren kasuan, hori aitortzen duen legezko agiria.


*11. En el caso de catástrofe, informe emitido como prueba por los servicios del Ayuntamiento de Ordizia. En el caso de viviendas en situación de ruina, documento legal que así lo acredite.*

12. Alarguntza kasuetan, heriotza ziurtagiria eta familia liburua.

*12. En caso de viudedad, certificado de defunción y libro de familia.*

13. Aniztasun funtzionalaren kasuan, mendekotasuna edo desgaitasunen ziurtagiriak.

*13. En caso de diversidad funcional, los documentos de dependencia o discapacidad.*



— Eskariak aurkezteko epea: Eskabideak aurkezteko epea deialdi hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratutako egunaren biharamunetik hasiko da zenbatzen eta 20 egun baliodunekoa izango da.

#### **10. artikulua. Akatsak zuzentzea**

Eskabide-orriak edo harekin batera doan nahitaezko dokumentazioak akatsen bat badu edo osatu gabe baldin badago, hamar eguneko epea emango zaie eskaera egiten dutenei, errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, eskaeran antzemandako akatsak zuzentzeko (urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1 artikulua).

Emandako epea igaro eta antzemandako akatsak zuzentzen ez badira, eskaeran atzera egin duela ulertuko da, eta prozedura artxibatu egingo da, aldez aurretik ebazpena emanda, urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera.

#### **11. artikulua. Justifikatzeko agiriak eta aurkezteko epea.**

Gastuak justifikatzeko, errentapetze kontratuan adierazitako diru kontura egindako sarreraren edo banku transferentziaren egiaztagiria aurkeztu beharko da. Kontuaren titularrak eta diru sarrera egin behar zaion pertsonak kontratua errentatzaile gisa sinatzen duen bera izan behar du. Halaber, diru sarrera egin duen pertsonak dirulaguntza eskatu eta jaso duena izan behar du.

Ebazpenean, lehen ordainketa eta bakarra aginduko da, eskaera egin den egunera arte dagozkion ordainagirien arabera.

— *Plazo de presentación de solicitudes: Las solicitudes podrán presentarse en el plazo de 20 días hábiles desde el día siguiente a la publicación del anuncio de esta convocatoria en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.*

#### **Artículo 10. Subsanación de defectos**


*Cuando la instancia de solicitud o la documentación preceptiva que la acompaña adolezca de algún error o sea incompleta, se otorgará a quienes efectúen la solicitud un plazo de diez días, contados a partir del día siguiente al de la notificación del requerimiento, para subsanar los defectos detectados (artículo 68.1 de la Ley 39/2015 de 1 de octubre).*

*Transcurrido el plazo concedido sin que se subsanen los defectos detectados, se las tendrá por desistidas de su petición, archivándose el procedimiento, previa resolución que será dictada en los términos de la Ley 39/2015 de 1 de octubre.*

#### **Artículo 11. Documentación justificativa y plazo para su presentación.**

*Los gastos se justificarán aportando el justificante del ingreso o transferencia bancaria a la cuenta que se indique en el contrato de arrendamiento. La persona titular de la cuenta y a la que debe hacerse el ingreso tiene que ser la misma que firma el contrato en calidad de arrendadora. Igualmente, la persona que realiza el ingreso, debe ser la que ha solicitado y percibido la subvención.*

*En la resolución de la convocatoria se ordenará un primer y único pago de la ayuda, proporcional a los justificantes de pago presentados hasta el día de presentación de la solicitud.*



Justifikatzeko falta diren agiriak, bere osotasunean, diruz lagunduko den hamabi hilabeteko epealdia amaitu ondoren aurkeztuko dira, eta edonola ere 2024ko urtarrilaren 15 baino lehen.

## **12. artikulua. Ebazpena eta jakinarazpena.**

Prozeduraren ebazpenak administrazio bidea amaituko du, eta eman eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da. Epe hori deialdia argitaratzen denetik aurrera hasiko da zenbatzen. Prozeduraren ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie urriaren 1eko 39/2015 Legeko 40. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eta lege horretako 43. artikulua jasotzen dituen xedapenen arabera gauzatuko da.

— Organo eskudunak: Instrukzioa eta proposamena: Gazteria Saila. Ebazpena: Alkatetzak.

## **13. artikulua. Errekurtsoak**

Interesdunek deialdi honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegietan, argitaratutako egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean. Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko oinarri hauek onartu dituen organo eskudunaren aurrean, argitaratutako egunaren biharamunetik hasi eta hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu, harik eta berraztertzeakoaren berriazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela,

*La totalidad, en su caso, del resto de documentación justificativa, deberá presentarse una vez finalizado el periodo de doce meses subvencionables, y en todo caso, antes del 15 de enero de 2024.*


## **Artículo 12. Resolución y notificación.**

*La resolución del procedimiento pondrá fin a la vía administrativa y el plazo máximo para resolver y notificar la misma no podrá exceder de seis meses. El plazo se computará a partir de la publicación de la correspondiente convocatoria. La resolución del procedimiento se notificará a las personas interesadas de conformidad con lo previsto en el artículo 40 de la Ley 39/2015 de 1 de octubre, y su práctica se ajustará a las disposiciones contenidas en el artículo 43 de la citada ley.*

— Órganos competentes: Instrucción y propuesta: departamento de juventud. Resolución: Alcaldía.

## **Artículo 13. Recursos**

*Las personas interesadas podrán interponer directamente contra la presente convocatoria recurso contencioso administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación. No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el órgano competente que la haya aprobado, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio*



**Ordiziako Udala**

2023GOIO0001

egoki iritzitako beste edozein errekurtsu aurkez *de la interposición de cualquier otro recurso*  
daiteke. *que se estime pertinente.*